

IRAKASKUNTZA-GIDA

2019/20

Ikastegia

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

3. maila

IRAKASGAIA

25953 - Jardute Profesionalerako Sarrera

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Ikasgai honetan gizarte langintzaren jardute profesionalaren ezagutzara lehengo hurbiltzeari aurre egingo diogu, babes-sozialeko sistema markutik eta biztanleria-sektore nagusietatik abiatuta. Hain zuzen ere, esku-hartze eremu ezberdinetan gizarte langileek dituzten funtzio eta betetze profesionalerako erabiltzen dituzten tresnen ezagutzara. Halaber, entzute aktibo eta komunikazio eraginkorrean kokatuta komunikazio-trebetasunak landuko dira. Honetaz gain, bizibidearen identitateaz eta aspektu epistemologikoetan sakonduko da. Irakasgaia E modulu barruan kokatzen da: Praktikum eta Gradu Amaierako Lana.

GARRANTZITSUA: Ikasgai honetan izena-eman ahal izateko "Gizarte Errealitateen Behatokia" eta "Gizarte Errealitateen Baliabideak" ikasgaiak gaintituak izan behar ditu ikasleak. Beste aldetik, Jardute profesionalerako sarrera ikasgaia nahitaez gaintitu beharko da 4.mailan kanpoko praktikak egin ahal izateko, hots, ikasgai-giltza da practicum ikasgaiaren matrikula egin ahal izateko.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Irakasgaiak modulu E honako konpetentzien garapena ahalbidetzen du:

- Pentsamendu kritiko eta sortzaile garatzea, ohiko arrazonamenduari arrazoi lerro alternatiboak garatzea eta ezarritako denbora baten barruan argudiatzea (M06CM03)*.
- Entzuleria zehatz batentzako bideratuta ahozko nola idatzizko ondorioak era egoki eta egituratu batean komunikatzea (M06CM09)*.

* Titulazioaren ANECA memoriaren gaitasun kodifikazioa.

IKASKETA-EMAITZAK:

- Lanpostu baten azterketan, ikekerta eta esku-hartze objektuak gizarte langintzako helburu eta metodologiekin koherentziaz identifikatzen ditu.
- Esku-hartze testuingurak, funtzio profesionalak eta identitatearen bestelako elementuak beste bizibideetatik bereizten eta harremantzen ditu.
- Lan-talde eta gizarte langile aditueei zuzendutako saioak planifikatzen eta dinamizatzen ditu. Gizarte langintzako profesionalei sakonezko elkarrizketak pretatzen eta gauzatzen ditu.
- Jardute profesionalari buruzko talde eztabaidetan hartzen du parte, dokumentazioa alderatuz eta bere iritzia eta argudioak argi eta asertiboki espresatuz.
- Ahozko komunikazioa era arin, argia eta ulergarrian espresatzen da.
- Idatzizko aurkezpen argiak, egituratuak eta ulergarriak, hala hizkera teknikori nola edukiari dagokionez, era egokian laboratzen ditu.
- Poster zientifikoak diseinatzen eta ekoizten ditu.
- Irakasgaiaren normatiba eta irizpide teknikoei jarraituz banakako eta taldeko txostenak laboratzen ditu.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

Titulazio baieztapen memorian jasotako edukiei jarraituz:

- Gizarte babes sistemak eta biztanleria sektore nagusienetarikoz gizarte langilearen rola eta funtzioak.
- * Biztanleria sektoreak: familia, haurtzaroa eta gazteria; adinekoak; bazterketa soziala dauden edo arriskuan dauden pertsonak; ezgaitasun edota gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak; etorkinak; talde etnikoak; drogak eta bestelako menpekotasunak dituzten pertsonak; genero bortizkeria biktimak eta ezberdintasun aukerak dituzten emakumeak; preso eta preso-ohiak; eta LGTBI kolektiboak.
- * Babes sistemak: gizarte zerbitzuak; osasun; hezkuntza; diru-sarrera bermaketa; etxebizitza; enplegu eta formazioa; justizia.

MODULUAK:

1. Esku-hartze testuinguruak, funtzioak eta gizarte langintzarako tresnak.
2. Epistemologia eta gizarte langintza.
3. Jardute profesionala eta identitatea.

Hau guztia, moduluko beste irakasgaietan ikusi diren populazio-sektoreak eta talde kalteberetako sektore nagusiei dagokienez, eta babes sozialeko sistema desberdinetan kokatuz. Zeharka etika profesionala, genero perspektiba, eahozko eta idatzizko komunikazio trebetasunak eta IKTen erabilpena landuko dira.

METODOLOGIA

Metodologia aktiboak eta lankidetzat talde-lanean oinarriturik.

Aurreikusten diren jarduerak gaitasun metodologikoak (ekiten jakin) eta jarrerazkoak (egoten jakin) garatzera bideratuta daude; halaber, ahozko eta idatzizko trebetasunak eta informazio eta komunikazio teknologiak erabiltzera bideratuak ere. Jarduera hauek lan-taldean aritzeko ikasleen abileziak eta gaitasun pertsonalak sustatzen dituzte, iturri ezberdinetako informazioa kudeatuz eta taldeko antolakuntza eta lana planifikatuz. Talde jarduera hezitzaileekin batera ezinbestekoa da ikasleen banakako lan autonomia.

Irakaskuntza mota mintegia izango da.

Mintegiek esparru profesionalarekin (arazoak konpontzeko ezagutzaren aplikazioa) loturiko gaitasunak garatzen dituzte. Halaber, instrumental eta komunikazio gaitasunak, besteak beste, informazio erabilpenean eragikortasuna eta ahozko eta idatzizko adierazpenak hobetzen laguntzen dute. Guzti hori aurrera eramateko, eztabaida taldeak (lauzpabost bat ikasle osatuak), bideo-saioak eta ariketa praktikokoak egongo dira. Banakako ardura eta erabakiak hartzen bultzatuko da.

JARDUERA HEZIGARRIAK:

- Testuen irakurketa eta banakako hausnarketa, moduluen saioei aurre egin baino lehen.
- Taldeko gogoetak eta eztabaidak gelan, ikusentzunezko materiala osagarriaz lagundurik.
- Jardute profesionalaren analisia, lanpostu azterketaren bitartez honako ekimenen bidez:
 - o Gizarte langileekin World-Kafea.
 - o 4. mailako kanpoko praktiketan dauden ikasleekin World-kafea.
- Taldeko lana: Lanaren txostena.
- Lanbide barneraketa banakako proposamen lanketa: "Nire jardute profesionalaren sarrera".

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak		60							
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.		90							

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Banakako lanak % 60
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 40

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EBALUAZIO SISTEMAREN ARGIPENAK:

"Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatutako izateko, etengabeko eba-luazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoko irakasgaiaren kasuan edo 18 astekoa urteko irakasgaienean, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa edo ikastur-tea hasten denetik kontatzen hasita. Irakasgaiaren irakaskuntza gidan epe luzeagoa ezarri ahal izango da" (8.3. art.).

Kalifikazioa honako lanez bidez egingo da eta batez bestekoa egin ahal izateko guztiak aurkeztu eta gainditu beharko dira:

- Banakako lana (Nire jardute profesionalaren sarrera): %60
- Taldeko lana (Lanaren txostena): %40

Honetaz gain, ebaluazio jarraian ezinbestekoak dira:

- Eskola guztietara etortzeko baldintza.
- Derrigorrezko irakurgai guztien banakako erregistroa (eskolako saioei aurre egin baino lehen egela plataformara igoko direnak).

Eskoletara joan ezean, taldeko lana banakako idatzitako proba baten bitartez ordezkatu da. Kasu honetan, batez bestekoa honela emango da:

- Proposamena-Nire jardute profesionalaren sarrera: %60
- Idatzitako proba: %40

DEIALDIARI UKO EGITEA:

Etengabeko ebaluazioaren kasuan: "deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio

irakasgaiaren ardura duen irakasleari" (12.2 art).

Azken ebaluazioaren kasuan: "azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea" (12.3 art).

"Etengabeko ebaluazioaren kasuan, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren %40 baino handiagoa, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa "aurkezteke" izan dadin. Aldiz, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren % 40 edo hori baino txikiagoa, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.

3.- Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea" (12.2 art.).

"Normalean, eta besterik adierazi ezean, UPV/EHUko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharrak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektroniko, informatiko edo bestelakoak erabiltzea ere. (Graduko Titulazio ofizialeko ikasleen ebaluaziorako arautegia" (3. puntu, or.5).

"UPV/EHU honako hauek joko dira jokabide makur edo iruzurrezkkotzat ebaluazio probetan edo ebaluatu beharreko lan adademikoak egitean eta aurkeztean: Lanak plagiatzea, hau da, ignoren lanak kopiazea jatorria edo iturria aipatu barik eta norberarenak balira bezala ematea ebaluazi akademikorako aurkezten diren testu edo lanetan" (2.a. puntu).

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ohiko deialdiko ebaluazio sistema bera mantentzen da.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

NAHITAEZ ERABILIKO DIREN MATERIALAK

- Oinarrizko bibliografiaren irakurketak (eGela).
- Oinarrizko bibliografia eta ikusentzunezkoak (eGela).
- Lan guztiei aurregiteko pautak.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

1. Modulua. Esku-hartze testuinguruak, funtzioak eta gizarte langintzarako tresnak.

* GARCÍA CASTILLA, Francisco Javier y MENESES FALCÓN, Carmen (2011). Ámbitos de intervención en el Trabajo Social. In FERNANDEZ GARCÍA, Tomás (coord.): Fundamentos del Trabajo Social. (p.345-384).

Madrid: Alianza Argitaletxea.

* HERNÁNDEZ ECHEGARAY, Arantxa (2018): Los riesgos de la profesionalización del Trabajo Social en España. Zerbitzuan, 31 (1), 139-152.

2. Modulua: Epistemologia eta gizarte langintza

* BERASALUZE CORREA, Ainhoa (2011). Egitetik haratago: pentsatzearen aribidea Gizarte Langintzan. Zerbitzuan 49, 9-18.

* ZAMANILLO, Teresa (1999). Objektuaren inguruko oharrak Gizarte Langintzan. Cuadernos de Trabajo Social, 12, 12-32.

3. Modulua: Jardute profesionala eta identitatea

Ovejas, Ch., Ariño, M. y Berasaluze, A. (2018). Topikoak eta Gizarte Lana ulertzeko gakoak. In Raya, E. Caparrós, N., Lorente, B y Anaut, S. (Coords): Ciencia y esencia en la práctica del Trabajo Social. (p.297- 312). Valencia: Tirant Humanidades.

* ZAMANILLO, Teresa (2009). Invitación a un trabajo social reflexivo. In XI Congreso Estatal de Trabajo Social: Trabajo Social, sentido y sentidos. Zaragoza. Kongresuaren Aktak. In http://www.colegiotstenerife.org/ficheros/File/Congreso-Zaragoza/01_Teresa_Zamanillo.pdf

* ARANGUREN, Edurne: "El trabajo social en clave de paz", In Muñoz, Francisco A. y BOLAÑOS CARMONA, Jorge (2011): Los hábitos de la paz, Universidad de Granada, Granada.

Gehiago sakontzeko bibliografia

1. Modulua: Esku-hartze testuinguruak, funtzioak eta gizarte langintzarako tresnak.

- COLOM MASFRET, Dolores (2010): El trabajo social sanitario en el marco de la optimización y sostenibilidad del sistema sanitario. Zerbitzuan, 47, 109-119.
- JAUSORO ALZOLA, Kristina y ARANGUREN VIGO, Edurne (2019): El trabajo social en el sistema educativo vasco, una apuesta social y política. Zerbitzuan, 68, 79-89.
- DIAZ Eduardo. (2009). "Los ámbitos profesionales del Trabajo Social". In Fernandez Tomas y Alemán Carmen: Introducción al trabajo social. Madrid. Alianza Argitaletxea.

2. Modulua: Epistemologia eta gizarte langintza.

- * ARIÑO ALTUNA Miren eta BERASALUZE CORREA Ainhoa (2012). "El limbo de la epistemología" In E. Sobremonte, Epistemología, teoría y modelos de intervención en Trabajo Social. Reflexión sobre la construcción disciplinar en España. Deusto Digital, Serie Maior, 13, 229-237. Deustu.
- * GUZMAN, Adriana y PAREDES, Julieta (2014). Feminismo Comunitario. Mujeres Creando. <https://www.youtube.com/watch?v=C6l2BnFCsyk> 37,25
- * KISNERMAN, Natalio (2013): Pensar el Trabajo social. Una introducción desde el construccionismo. Erresuma Batua: Edward Argitarapenak (1998 1. Argitalpena. Buenos Aires: Lumen Humanitas).

3. Modulua: Jardute profesionala eta identitatea

- * ARANGUREN, Edurne (2014). "Empoderamiento profesional e intelectual en Trabajo Social. Retos de futuro". Azarbe. Revista Internacional de Trabajo Social y Bienestar, 3, 139-147.
- *VELASCO, Koldobi (2011). "¿Mediamos o sustituimos en el ejercicio profesional?" Mendekotasunetik Harantz. Gizarte Langintzako IV. Jardunaldia. Vitoria-Gasteiz. <https://egela1516.ehu.eus/mod/url/view.php?id=571702>

Aldizkariak

- AZARBE. Universidad de Murcia. <http://revistas.um.es/azarbe>
- CUADERNOS DE TRABAJO SOCIAL Universidad Complutense de Madrid. <http://revistas.ucm.es/index.php/CUTS>
- PORTULARIA - Revista de Trabajo Social - Universidad de Huelva. www.uhu.es/publicaciones/revistas/portularia
- Trabajo Social Hoy. <http://www.comtrabajosocial.com/index.asp?tp=2&pag=pub&sub=prev>
- Alternativas. Cuadernos de Trabajo Social <http://rua.ua.es/dspace/handle/10045/5269>
- REVISTA DE TREBALL SOCIAL. http://www.tscat.cat/index.php?option=com_content&view=article&id=68&Itemid=168&lang=ca
- SERVICIOS SOCIALES Y POLÍTICA SOCIAL. Consejo General de TTSS http://www.cgtrabajosocial.com/revista_digital_en_abierto
- DOCUMENTOS DE TRABAJO SOCIAL. Colegio de Trabajo Social de Málaga. <http://www.trabajosocialmalaga.org/revistadts/>
- GIZARTERATUZ SIIS Boletín <http://www.siiis.net/es/boletin-gizarteratuz.php>
- Zerbitzuan. Eusko Jarlaritzaren Gizarte Gaien Sailburuordetza. [Http://www.zerbitzuan.net/](http://www.zerbitzuan.net/)

Interneteko helbide interesgarriak

OHARRAK

Ebaluazio proba batean kopiatu egin dela egiaztatuz gero, tartean sartuta dauden ikasle guztiei «suspentso» kalifikazioa jarriko zaie, bakoitzaren erantzukizuna gorabehera. Pertsona bat kopiatzen ari dela proban bertan egiaztatuz gero, momentuan bertan proba egiteari uzteko agindu ahal izango zaio (11.3. art.).

Zuzenketa gramatikala eta idazkera betebeharrezko irizpidea da.